

TARIFAK, BALDINTZA OROKORRAK, ALOKAIKURUKO ARAUDIA ETA EZEZTAPENAK

TARIFAK

Egonaldiaren arabera prezioa jakiteko, Erabili ezazu gure bilatzailea. Zure gustoko egonaldia agertzen ez bada egin eskakizuna eta lehenbaitlehen erantzunen dizugu.

Enekoneko Bordan egin behar duzun egonaldiaz gozatzea nahiko genuke.

Natura eta nekazal giroan etxe polita, garbia eta eroso eskeiniko dizugula bermatzen dizugu.

Osorik alokatzen dugun etxea da, Nafarroako Gobernuko turismo departamentuan UCR00190 zenbakiarekin erregistratua. Beraz, eskatutako balditzak betetzen ditu.

Etxea erreserbatzen den unetik eta etxetik atera arte hemen azaldutako arauak errespetatu eta bete beharko dituzue. Horrela ez balitz etxearen jabeak erreserba bertan bera utz dezake, etxea berehala hustu beharko delarik, inongo dirurik itzuli gabe.

Pertsona kopurua. Gehienez, 12 lagun eta seaskako haurra onartzen ditugu. Erreserba egiterakoan ongi azaldu behar duzue jende kopurua: zenbat heldu, zenbat haur eta zenbat ume (2 urtez beitiok). Erreserba egin ondotik jende gehiago etortzea erabakitzen baduzue, aldaketa horrek prezioan eragina izan dezake. Animaliak ekarri nahi izanez gero abisatzea beharrezkoa baita kopurura zehaztea ere. Bisitak: egun pasarako norbait hartu nahi izanez gero jabeari jakinarazi beharko zaio.

- 1) Erreserbaren baieztapena. Horretarako egonaldiaren %40 ordaindu beharko duzue, emanen dugun kontu zenbaki batera trasferentzia eginez. Dirua iritsi orduko posta elektronikoa bidez edo posta arruntaz erreserbaren baieztapena dokumentua helaraziko dizuegu: bezeroaren izena eta abizenak, lagun kopurua, sarrera data eta irteera eguna, egonaldiaren prezioa eta aitzindutako diru kopurua. Dokumentu honetan hitzordurako tokira iristeko azalpenak ere idatzita daude. (Ikusi gehigarria).
- 2) Egonaldiren ordainketa. Etxera iritsi orduko ordainagiria prest izanen dugu eta bezeroak, falta den kopururaren ordainketa efektiboan edo trasferentzia bitartez egingen du (bankuko ordainagiriaren kopia beharrezkoa da).
- 3) Erreserbaren ezeztapena.
 - a) Bezeroak, sarrera data baino 15 egun lehenago arte erreserba ezeztatzea erabakitzen badu, ordaindutako kopurua itzuliko diogu, bere osotasunean.
 - b) Bezeroak, sarrera data baino 8 eta 14 egun lehenago erreserba ezeztatzea erabakitzen badu, ordaindutakoaren %50 ituliko diogu.
 - c) Bezeroak, sarrera data baino azkeneko 7 egunetan erreserba ezeztatzea erabakitzen badu ez diogu aitzindutako dirua itzuliko.
 - d) Azkeneko 15 egunetan ez dugu erreserbatutako daten aldaketarik onartuko. Ezeztatutako erreserba galdutzat izanen da.
- 4) Iritsiera eta irteera.
 - a) Ordutegiak. Bezeroa, bezperan, gurekin harremanetan jarriko da biharamuneko hitzordua zehazteko. Turismo departamentuaren arauen arabera hauxe da bete beharreko ordutegia:
 - i) Sarrera: 17:00-20:00
 - ii) Irteera: 12:00
 - iii) Halere, bertze aukeraren bat nahi izanez gero (bazkalondoan ateratzea, adibidez) jabea eta bezeroaren artean adostu daiteke (baldin eta egun horretan ez bada inor gehiago sartzen).
 - b) Bezeroa, inongo abisurik egin gabe, 20:00 ordutarako iritsi ez bada jabeak erreserba ezeztatu dezake. Horregatik, beranduago iritsi nahi izanez gero, jabea abisatzea komeni da

TARIFAK, BALDINTZA OROKORRAK, ALOKAIRUKO ARAUDIA ETA EZEZTAPENAK

- c) Etxean sartzekoan, bezeroak egonaldiko kontratua sinatuko du (dokumentu hau bera eta epostaz edo posta arruntaz bidalitako erreserba baieztapen dokumentua).
 - d) Etxean sartzekoan, pertsona bakoitzaren NAN edo pasaporteak ikustarazi beharko duzue, bezero sarrera erregistratzeko, Barne Ministeritzaren arautegiaren arabera (Agindua INT/1992/2003, uztailak 3, erregistro liburuak eta bidaiari sarreraren parteak, turismo alojamenduetarako).
 - e) Irteera. Bezeroak, etxea behar den bezala bildua eta ordenatua utzi behar du, maindireak eta eskuoihalak sukaldean pilatuta, sukaldeko tresnak garbiak eta bere tokira erretiratuak. Zaborra, bezeroak beraiek eraman beharko dute.
- 5) Egonaldian eskeinitako zerbitzuak.
- a) Kontsumitutako ura, argindarra eta berogailua hitzartutako prezioaren barne dago. Horregatik, debekatuta dago kontsumoa haunditu dezaken edozein tresna. Ura, argia, berogailua eta egurraren zentzuzko kontsumoa eskatzen dugu.
 - b) Maindireak eta eskuoihalak. Oahntzeak prest uzten ditugu eta pertsona bakoitzarendako 2 eskuoihal daude (oihal haundi 1 eta oihal Tiki 1). 7 egun baino gehiagoko egonaldietan, maindireak eta eskuoihalen aldaketa jabea eta bezeroen artean hitzartuko da.
 - c) Berogailuaren programazioa, bezeroaren beharren arabera egingen da bai tenperatura aldetik bai ordu kopuruaren aldetik baino bezeroak ezin du eskatu gauaz ere piztua mantentzea
 - d) Bezeroak nahi duen egur guziaz izanen du: barbakoa, lurreko sua eta labea erabiltzeko. Errekargurik gabe.
 - e) Sukaldeko tresnak: ogi zigorgailua, zukugailua, kafetera eta irabiagailua.
 - f) Seaska. Errekargurik gabe. 2 urtez beirik umeendako.
 - g) Nahi izanez gero eta jabearekin hitzartuz gero, goizero ogia eta opilak eraman ditzakegu. Hauek kontuak, irteerako egunean egingen ditugu.
 - h) Aitzinetik hitzartuz gero, mendi ibilaldiak prestatu ditzakegu. Horretarako gps gailua dugu zeinean bezeroak nahi duen ibilbidea sartzen dugu. Laguntzeko, autatutako ibilbidearen mapa ematen dugu.
- 6) Garbiketa. Egonaldian, bezeroari dagokio etxearen garbiketa. Bezeroaren betebeharren artean etxea txukun uztea dago.
- 7) Altzairu edo kontsumo haundiko soinu tresnarik ezin da etxean sartu.
- 8) Debeekatuta dago alojamendurako ez den edozein aferatarako etxearen erabilpena. Inguruko lasaitasuna. Ingurua kaltetu dezaken edozein iharduera galerazita dago.
- 9) Bezeroaren balorezko gauzen ardura norberarena da baita etxera iristeko erabili duen ibilgailuarena ere. Jabeak ez dute inongo ardurarik desagertu daitezkeen gauzen gain.
- 10) Enekoneko Borda, web atari ezberdinetan dago baino erreserba baieztapenean jartzen ditugun prezioak dira balizkoak, ez bertze inon agertutakoak. (Ikusi gehigarria).

Oharra. Enekoneko Borda etxe berezia da. Argindarra ez da modu arruntean iristen baizik eta energia berriztatzaileen bitartez: eguzki plakak, haize errota eta gasolinazko motorra. Energia berriztatzeileak limitatuta daude, adibidez, ez du ematen labe elektrikoa edo freidora erabiltzeko indar nahiko; horren eskasian, kanpoko aldean, barbakoa ondoan egur labe ederra dago. Arrazoi beragatik ezin da musika tresna potenterik erabili. Onartzen dugu deseresoa izan daitezkeela baino bertzaldetik, etxe isolatua izanik, mendian galtzeko aukera izanen duzue baita inork ez entzuteko aukera ere. (barrideen etxea 200 metrotara dago).

TARIFAK, BALDINTZA OROKORRAK, ALOKAIKURUKO ARAUDIA ETA EZEZTAPENAK

GEHIGARRIA 1



ENEKONEKO BORDA.

[Erreserbaren baieztapena.](#)

[Confirmación de reserva.](#)

FITXA ZENBAKIA «IdFichaCab»

Sarrera eguna: «[FechaLlegada](#)»

Irteera eguna: «[FechaSalida](#)»

Kontratatuak zerbitzuak:

«[Detalle_Estancia](#)»: número de personas, número de animales y número de noches. Precio total, IVA incluido.

«[NombreCliente](#)» «[ApellidosCliente](#)» bezeroak «[TotalPagos](#)» € erreserba kontzeptuan ordaindu du.

Edozein zalantza duzula gurekin harremanetan jar zaitez.


Felixa: 629 68 43 55 / 948 45 34 19

Email: enekonea@otsondo.eus

[Jaso ezazu gure agur beroa.](#)

(Antiguo) Restaurante MENDIALDE Jatetxea (ohia). N121B KM 59. Coordenadas-
Koordenadak: 43°12'33.6"N 1°29'20.7"W

43.209326, -1.489079



Iristeko egunaren bezperan gurekin harremanetan jartzea eskertuko genizuke, ahal bada telefono deiarren bitartez. Hurrengo egunerako hitzordua eginen dugu: ardua eta tokia. Gehienetan, Mendialde jatetxe oihan itxaroten dugu eta handik baserriraino lagunduko zaitugu.

EZEZTAPENAK:

Egonaldiaren baldintzetan azaldutakoaren arabera.

Amaiurren 20xxko xxxxx 00

TARIFAK, BALDINTZA OROKORRAK, ALOKAIKURKO ARAUDIA
ETA EZEZTAPENAK
